




Astekaria



elgoi



# Oporrak euskara ikasten



**LARRANAGA** autoeskola



Santa Ana II. 74 10 11 - ELGOIBAR

## *Ezkontzak*



San Frantzisko, 19 - Tel. 74 42 13 - 20870 ELGOIBAR

*Bizitzako edozein momentu da  
alaiagoa lore sorta batekin*

## *Zentroak*



## *Jatetxeak*



## *Eskenatokiak*



## *Jaunartzeak*



*Bulegoak • Etxeak • Atariak • Terrazak • Lorategiak • Hiletak • ...*

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEA:**

Maitte Rementería.

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Egun batez euskaldun, eta gero zer?

**D**atorren urtean Elgoibarren izango dira KILOMETROAK. Gogo onez hartu da berria herrian, eta bete-betea nago makina batek eskainiko duela bere burua edozertan iharduteko eta guztiak gogotik lan egingo dutela gainera.

Horrelako egunak egundokoak izaten dira: giro jatorra, jendea barra-barra, nahi beste ekintza aukeran, aspaldi ikusi gabeko ezagunekin elkartu eta, nola ez, parranda galanta egiteko aproposak dira. Ez da inor aspertzen; zaharrak, haurrak eta, batez ere, gazteak, primeran ibiltzen dira den-denak.

Milaka eta milaka lagun biltzen da euskararen inguruko ospakizunetan: ikastola, egunkari, euskaltegi eta abarrekoetan. Baina zenbaterik begiraten dio horien mamiari, esanahiari, azal hutsean geratu gabe?

Hainbaten jokaerak barrea eragiten dit niri -egia esan, amorrua edo ernegua dira hitz zehatzak-. Ezagutzen ditut euskaraz ederki jakin arren inoiz erabiltzen ez duten lagun talde batzuk (gure hizkuntza ez baita, nonbait, modernoa edo gaur eguneko bizimodurako modukoa), horrelako jai guztietara joaten direnak. Eta han ibiltzen dira, pegatinaz josita,


ekintza guztietan parte hartzen, inor baino euskaltzaleago eta abertzaleago. Euskaraz ere hitz egiten dute halakoetan, egokia baita, eta "Euskal Herrian euskaraz" kanta grina biziz abesten dute gainera. Egun ederra igaro ondoren, etxera itzultzen dira, euskal kontzientzia erabat zurituta eta garbi-garbi dutela. Eta akabo, hurrengo festa arte.

Badut lagun bat txikitzen euskara hutsean bizi zena, baina gerora, ez erabiltzearen poderioz, galdu egin duena. Orain, haurrei eta txakurrei bakarrik egiten die euskaraz. Kilometroak bere herrian egin zirenean, jo eta su aritu zen lanean. Bertan izan nintzen ni ere, eta gaez berarekin topo egin nuen. Pozik zegoen benetan, egin zituenak harro-harro kontatzen, eta aho betean esan zidan euskara oso garrantzitsua dela, horrelako ospakizunei gogor eutsi behar zaiela, mundu guztiak lan egin beharko lukeela... hori bai, dena erdaraz.

Kontu hauetan luzaro jarrai nezake, BARRENeko orrialde guztiak bete arte. Baina ezinezkoa zaidanez, gauza bat bakarrik: horrela ez goaz inora, beno bai: asimilazio osora.

Maite Solozabal

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

"Duela bi aste gure haurrak I. Bereziartua Musikeskolan urtean zehar egin dutenaren txosten edo informea ekarri zuen etxera. Menbretea izan ezik osterantzeko gutzia erdara hutsez zegoen. Karramarroarena egiten ari gara. Bilinguismoa, diskriminazioa... hitz politak, azkenean denok erdaraz bukatzen baitugu."



## TXALOAK

Emakume batek Altxolako jaiak antolatzen jardun dutenak txalotu nahi ditu. Aspaldian behera egin bazuten ere, aurtin inoiz baino jai politagoak izan dira bere ustez. Horretan jarraitzea animatu nahi ditu antolatzaileak eta datorren urtean ere, aurtengoak bezain jai onak izatea opa die.

# ESKUTITZAK

## Zigorrak Ikastolan

**A**zkenean lortu dute! Duela bi urte, eskola pribatu bezala funtzionatzea erabaki zutenak, harro egon daitezke. Bide publikoaren alde (gurasoen erdia baino gehiagoren adostasunez) borrokatu dugunok zigortzea erabaki dute, horretarako gatazka honen aurrean aurpegia eman dugunetarik bi kaleratuz. Beraz, adi besteok!, zaudete isilik, ez ezazue gestioaren aurka ahotsik altxa edo/eta gestioaren (Alfonsoren) atzaparrek bete-betean harra-patuko zaituztete.

Erabaki hau justifikatzeko ezarri dituzten kriterioak, asko, subjektiboak eta manipulatzeko errazak izan dira: hezkuntza proiektuarekiko identifikazioa, dedikazioa etab., beste batzuen artean. Zuzendaritzak neur ezin ditzakeen kriterioak alegia, ez baitu oraingoz horretarako tresna objektiborik.

"Publica-privada"ri buruzko asanbladan jasan genuen "kazikada"ren ondoren, guretzat garbi zegoen isilik egotea zela onena eta zuzendaritza eta Junta Erretoraren gestioa kritikatzeko txarrena, eta hortxe datza gure pekatua. Ez isiltzeagatik, kritikatzegatik, jasaten ari ginen bazterkeria eta informazio eza salatzeagatik kaleratu gaituzte. Ezetz esango dute, baina denok daki-gu baietz. Eskola Publikoaren alde gaude-nok zigortu nahi izan gaituzte, bide batez soberakinen arazoa konpontzen dutelarik. Profesionaltasunak izan beharko luke soberakinak izendatzeko kriterio nagusia, baina ikastola honetan, zuzendaritzari amen jesu egiteak gehiago balio du, gelan eta ikasleekin egiten den lanak baino.

Zuzendaritzak, beharbada bere arazoak konpontzeko ezintasunagatik, neurri gogorenari heldu dio: sektore kritikiko norbana-

koak isiltzeari, beraiekin bat ez datorren edonor isilarazteari, beraien gestioa zalantzan jar dezakeen edonor kaleratzeari. Iragan ditugun garai onenak hobetsiz, haurrengan sortu nahi dugun zentzu kritikoa ukatu egiten zaigu irakasleoi. Hau kontraesana!

**Jose Luis Ibarzabal eta Enrike Larrañaga**

## Herri bat Gaztetxe bat

**D**enok entzun izan dugu esaldi hau. Noiz edo noiz eta aspalditxo hasi ziren herriko gazte batzuek berau lortu nahian lanean. Gaur, gaztetxea, batzuentzat ezinbestekoa den zerbait eta beste batzuentzat ezegokia edo kaltegarria den existitzen ez den zerbait da. Ondorioz, proposamen hau luzatzen diot Elgoibarko herriari: zergatik ez da lehiaketa bat antolatzen? Bai, hori da, norberak bere pentsamoldea gaitzizen baten bidez adierazten duen lehiaketa edo... Bertan, gazteok nahi dugun (edo nahi ez dugun) gaztetxea nolakoa izango litzatekeen adieraziko genuke. Gazteok esatean, ez naiz gazte kolektibo bati buruz ari, herri honetako ideologia ezberdindun gazte orori buruz baizik.

Nire ustez gazteok gaztetxearen bidez ez dugula beste taberna bat nahi argi lagata badago ere, beharbada herritar batzuk oraindik ez zarete honetaz ohartu. Lortu nahi duguna, nolabait esateko, kultur gune bat dela uste dut. Denon ideiak onartzen dituen, informatzen gaituen, laguntzen gaituen toki bat eskatzen dugu.

Hainbeste eskatzea al da? Zein da helburu hau lortzeko oztopo nagusia? Lehenago aipaturiko lehiaketara bueltatuz, nik neuk gazteongana zuzenduko nukeela esan nahi dut. Gazteon iritzia jakin ondoren, helduekin hitzegitea litzateke hurrengo pausoa, ondoren gaztetxeari behin-behineko baietza edo ezetza emateko.

Zer deritzozue planteaturikoari buruz? Zuen erantzunaren zain,  
**A.U.**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK







**A**ltzolako futbol taldea dakusagu argazkian, 1962. urtearen bueltakoa. **Javier Bernedok** ekarri digu erredakziora, lehenago mendarotarrak agertuta daudela eta, altzolakoa ez direla gutxiago. Egun horretan Mendaroko taldearen aurkako partiduan 2-0 irabazi zuten altzolarrek. Lerungo futbol zelai zaharrean izan zen topaketa, **Aurelio Galarragari** egin zi-

tzaion omenaldian.

Talde irabazlea osatu zuten jokalaria hauek dira:

Atzean tente, ezkerretik hasita: **Fernando Mancisidor, Manolo Iriondo, Lorenzo Arregi, Angel Izagierre, Juan Manuel Mekolalde** eta **Nicolas Arrieta**.

Makurtuta: **Pedro Mari Goikoetxea, Javier Bernedo, Luis Barrenetxea, Jesus Maria Barrenetxea** eta **Antonio Etxabe**.

**HERRI-  
GAIN**  
**ERRETEGIA**  
San Pedro auzoa 4  
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

## EATE

### JATETXEA ETA LOGELAK

- Marisko parrilada berezia (7.500 pta.)
  - Marisko parrilada (2 pertsona, ...)
  - Karta begetarianoa
- etxeke postreak,...

**Aurrez  
enkargatu**

- BATAIOAK ▪ JAUNARTZEAK**  
**▪ EZKONTZAK ▪ LAGUN ARTEKO AFARIAK**

Arrona Goikoa. ZESTUA ▪ Tel 14 76 93

# Uda euskaraz biziz

Uda sasoiari sartu berri gara. Garai hau gehienontzat berezia izan ohi da oporrak izaten baitira. Honela, lanaz ahaztu eta, hilabetez behintzat, bestelako parajeak ezagutzeko aukera izaten da edo, gutxienez, egunerokotasunetik kanpo gauza bereziak egiteko aprobetxatzen da. Batzuek, ikasteko edo urtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko ematen dute, hizkuntzak, adibidez. Euskara ikasi nahi duenak, besteak beste, ikastaro trinkoak eta barnetegiak ditu bai eta "Familia euskaldunetan egonaldiak" programan parte hartzeko aukera ere.



■ ■ Arantza herrian dago Aterpe, AEKren barnetegi berria.

**B**arnetegietara joateko aukera udan zein neguan dago. Euskal Herriko parajeetan zehar banatuak, hainbat etxe daude aukeratan. Bertan, hamabost egun edo hiru aste inguruko egonaldiak izaten dira, lagunartean. 3. urratetik aurrera joan daiteke barnetegi batera eta horietan, ikasteaz gain, jendea ezagutu eta ekintza diferentek egiteko aukera izaten da. Barnetegi batean, urtean zehar teoriarik ikasitakoa guztia praktikan jartzen da euskaraz biziz, goizean goiz jaiki eta gauean lotaratu arte. Gipuzkoako Udal Euskaltegiek Beizaman dute beraien barnetegiak. Ekainaren 26tik uztailaren 14ra bitartera luzatzen da egonaldia eta egu-

nero 6 orduko klaseak izaten dira. Ordu horietatik kanpo hitzaldiak, irteerak, bertso saioak eta kantaldiak ere izango da aurten.

AEKk orain dela 15 urte antolatu zuen lehen aldiz barnetegi bat. Gaur egun, 16 barnetegi ditu, Euskal Herri osoan zehar banatuak; besteak beste, Aian, Aizarnazabal, Ondarroan, Zestoan edota Urepelen. Bi, hiru edo lau asteko iraupena izaten dute barnetegi hauek nahiz eta neguan ere antolatzen dituzten, kasu honetan minimoa hilabete izanik eta komenigarriena lau hilabetekoa, benetako soltura lortzen baita euskarari dagokionean. Eguneroko sei ordu inguru ematen dituzte klasean eta gero tailerrak egiten dira,

## LEIRE URBIOLA

### Zer moduz barnetegian?

- Ondarroako barnetegian egon izan zara.

- Bai, orain dela bi urte egon nintzen lehen aldiz. Maila nahiko majoa neukan baina hitzegiteko orduan kostatu egiten zitzaidan, lotsagatik edo. Eta barnetegi batera joatea erabaki nuen hiru aste pasatzera.

- Eta esperientzia ona, ez?

- Oso ona. Bakarrik joan nintzen eta 50 pertsonetatik ez nuen inolra ezagutzen, hasierako lana, beraz, jendea ezagutzea da, horretarako jokoak egiten direlarik. Gero, han egiten diren lagunak ez dira inoiz

galtzen.

- Tailerrak ere egiten dira, ez?

- Bai, dena ez dira klaseak. Tailerrak ikasleen arabera antolatzen dira, segun eta ikasleek zer dakiten; dantza, musean jokatzeko...

- Ikasi al zenuen?

- Bai, dudarik gabe. Iritsi orduko deskonektatu egiten duzu eta euskaraz bizitzen hasten zara, goizean goiz hasi eta gauera arte. Ametsak ere euskaraz izaten dituzu.

- Eta bueltan, hitzegiten al duzu?

- Bai, ahal dudana guztietan. Nere koadrilarekin, lanean, etxean...

- Zergatik hasi zinen euskara



ikasten?

- Nire hizkuntza delako eta jakin behar nuelako.

- Aurten?

- Aurten ere banoa barnetegira. Merezi du, benetan. Euskara ikasteaz gain, beste gauza asko bizitzeko aukera ere badago.

## ZIALTZETA-ADURIZ FAMILIA

### Egonaldiak familia euskaldunetan

- Nola izan zenuten programaren berri?

- Lehenengo lagun batzuei entzun genien beraien etxean neska bat zutela euskara ikasteko. Hurrengo urtian irratian entzun gendun, hitzegin eta probatzera animatu ginen. Orain dala bost urte izan gendun etxian lehenengo neska.

- Zer baldintza bete behar zenuten?

- Familiaren %80 euskalduna izatea eta bi pertsonaz baino gehiagoz osatua izatea.

- Zergatik erabaki zenuten probatzea?

- Euskarari guk ahal degun bezala laguntza bat eskaintzeko eta geuretzat ere esperientzia berri bat izateko.

- Zenbat urtez izan zarete programa barruan?

- Lau urtez. Lau neska izan ditugu,

hiru bizkaitar eta arabar bat.

- Zenbat denbora izan ziren zuekin?

- Hilabete, uztaila osoa. Logela bat moldatu gendun beraietzat eta gurekin bizi ziren. Etxeko lanak egiten laguntzen zuten, pasiatzera gurekin etortzen ziren...

- Dirulaguntzarik jaso al zenuten?

- Bai, lehenengo urtean 45.000 pta. inguru. Jaurilaritzak, ikasle bakoitzak duen euskara mailaren arabera dirulaguntza bat ematen du eta gainontzekoa beraiek jarri behar dute. Zenbat eta maila altuagoa izan orduan eta laguntza handiagoa jasotzen dute.

- Mantentzen al duzue harremanak?

- Ahal dugun neurrian bai, Gabonetan eta urtebetetze egunean behintzat beti bidaltzen diegu postaltxo bat eta guk ere jasotzen dugu.



### Egonaldiak familia euskaldunetan

Eusko Jaurilaritzako Kultura sailak "Egonaldiak familia euskaldunetan" programa antolatzen du urtero. Helburua, euskalduntze prozesuan dauden pertsonen inguru euskaldun batean denboraldi bat pasatzea eta euskara eguneroko bizitzan erabiltzea da. Uztailetik irailera bitartean, hainbat familia euskaldunek beraien etxetan ikasleak jasotzen dituzte familiako partaide bezala hartuz. Programa hauetan parte hartu nahi duen ikasleak 18 eta 35 urte bitartean izan behar du eta 8. urratskoa behar da izan edo Hizkuntza Eskola Ofizialean hirugarren maila gainditua, lehen edo bigarren perfilek eskuratuak, Labayru Institutuko eta Deustuko Euskal Irakaslegoko 8. maila gainditua edota BBB zein UBI B edo D ereduetan ikasia. Ikasleak berak aukeratzen du zein herritara joan nahi duen eta, esan bezala, familia baten etxean, familia horrek daraman bizimodua jarraituz ematen du hilabete oso bat.



■ ■ Gipuzkoako Udal Euskaltegiek Beizaman dute barnetegia.

edozein gairi buruzko tailerrak, hala nola, txalaparta, larrua, egurra...

Egun asko izaten dira elkarrekin igarotzen dituztenak, gau eta egun, eta horietan sortzen diren loturak benetakoak izaten dira, betirako mantentzen diren adiskideak eginez. Euskara ikasteaz gain, bestelako esperientzia aberasgarriak bizitzeko aukera ere eskaintzen dute barnetegiek.

# Zergatik erabaki dudan barnetegi batean euskara ikastea?

**A**rtikulu hau kaleratzen den egunean bukatutzat emango dut Oñatiko Larrañaga barnetegian eman dudan ikastaldia. Handik itzuliko gara, eta gurekin batera euskarari eman ditugun urrats apurrak, Euskal Herriko Administrazioaren zenbait lanpostutara berriro ere gure lanari heltzera.

Batzuetan, dirubiltzaile lanean ari nintzela, norbaiti ordain-agiria azaltzen hasi eta hark, analfabetoa zelako, ez ulertzea gertatu izan zitzaidan. Erabat penatua gelditzen nintzen. Egunak joan egunak etorri, horrela bizitzea oso zaila izan behar zela iruditzen zitzaidan. Askotan lotsagorrituta azaldu behar egoera hori, konfidantzarik gabe fakturak ordaindu, hatz markaz sinatu eta abar.

Besteen egoerak pena ematen bazidan, pentsa nola sentitu nintzen nik ere alfabetatu beharra neukala entzun nuenean. Gurasoengandik jasotako hizkuntzan analfabetoa! Bat batean, inoiz ez nuela liburu bat euskaraz irakurri konturatu nintzen; eta ez nuela sekula ezer euskaraz idatzi. Orain ulertzen dut

zer esan nahi duen “euskararen normalizazioak”. Frantzia edo Portugalen bertako hizkuntzak erabiltzea normala bada, Euskal Herriaren euskararen erabilera ez. Gero eta gehiago erabili arren, oraindik ez da normala. Askok ez dugu ezer jakin nahi izan egoera honetaz. Alfabetatzen lan gogorra egin eta zailena dena, egunerokotasunean gogoz erabiltzea. Nik zorrea izan dut. Nire lanetatik administrazioak behartu nau pauso hauek ematera. Horregatik, ikasitako apurrak erabiliz, eskerrak eman beharrean nago Elgoibarko herriari. BARREnek euskara ikasteko udako ikastaroei begira eta barnetegiko aukera ona delako, nire esperientzia kontatzeko eskatu dit.

Zer esan dezake euskaldun zahar analfabeto batek euskaldun berri askoren artean emandako denboraz? Hasieran hitzik ere esaten ez zuenak, majo eztabaidatzen duela orain abortuari, HIESARI edo Tourari buruz. Saiatuz gero, gai dela kriston kexa idazteko Iruñeko alkateari ere, ez Beatriz? Merezi duela “Nor-nori-nork”-ekin amorrazio


batzuk pasatzea gurea den hizkuntza honetan idazten gai izateko edo BARREN punta batetik bestera irakurtzeko. Eta zer esan euskara hutsen egindako lagunei buruz, Ulpiano, Pilar, Petri, Roberto eta beste guztiak? Nola ahaztu elkarrekin emandako egunak? Hizkuntza elkarren arteko loturak hedatzeko bada, egin dezagun guk geurean ez dakienarekin, grina sortuz, gure seme-alabei bezala irakatsiz.

Ez galdu denbora, ez galdu aukera, jo euskara ikastera.



EDUARDO OSORO

## ELGOIBAR INMOBILIARIA S.A.



**ETXEBIZITZAK**  
**San Roke Poligonoan**

**1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak**

**8.224.000 pta.tik gora**

**INFORMAZIOA: Leku Ederreko lokaletan. ☎ 74 40 34**



## Egon al zara inoiz barnetegi batean?



**BEGONA JUARISTI**  
26 urte, langabetua

Joaten pentsatzen ari naiz baina oraindik ez dakit. Ni langabetua naiz eta arazoa da hara joatea garestia dela. Mintzamina lantzeko joan nahiko nuke.



**MARI JOSE OLIVARES**  
33 urte, abokatu

Bai, duela bi urte Lizartzan. Hitzegin nahi nuen eta soltura piska bat hartu. Berriro joatea gustatuko litzaidake baina oraingoz ezinezkoa zait.



**JESUS ANGEL HIJANO**  
27 urte, irakaslea

Bai. Euskara bertako hizkuntza denez eta lanerako ere behar nuen, ikasi egin nahi nuen. Barnetegiaren giro euskalduna dago eta ikasteko metodorik onena da.




**PILI IRANZO**  
26 urte, ileapaintzailea

Ez, opor motzak ditut baina bi hilabete izango banitu gustura joango nintzateke. Beldur piska bat ematen dit ezagutzen ez duzun jendearekin euskaraz hitz egiteak.



**CONCHI GOMEZ**  
22 urte, ikaslea

Ez, inoiz ere ez. Ez naiz joan denborarik ez daukadalako. Mintzamina lantzeko oso aproposa izan daiteke baina ikasteko klasea joatea da onena.



**JUAN CARLOS RANA**  
26 urte, gidaria

Iaz Aulestin egon nintzen hiru astez eta erraztasun handia hartu nuen eta gainera oso ondo ibili nintzen. Abuztuan barnetegiara batera joango naiz berriro.



San Frantzisko, 35. Tel. 74 06 38



**Astehenetik ostiralera goizeko 9etan zabaltzen dugu**

## ■ Itxaropena abesbatzak Zarautzen kantatuko du

Itxaropena abesbatzak Zarauzko San Pelaio elizan kontzertua emango du gaur, hilak 30, arratsaldeko 19,45etan, Gipuzkoako Abesbatzen XXIX. Jaialdiaren barruan. Nerea Ugarteren zuzendaritzapean honako hamalau obra hauek kantatuko dituzte: "Dindirin", "Belle qui ta ma vie", "Teresica hermana", "Popule Meus", "Domine Jesu Christe", "O Bone Jesu", "O Jesu Christe", "Alla va un encobijado", "Azulao", "Can't help falling in love", "Yesterday", "Goizian argi hastian", "Ama" eta "Saratarra".

## ■ Nathaliaren kontzertua

Nathalia abeslari elgoibartarra kantuan ikusteko aukera izango dugu gaur, hilak 30, gaueko 22,15etatik aurrera Herriko Antzokian. "Canción melódica" deitzen den estiloan abesten du kantari elgoibartarrak eta eskenatokian laguntzaile izango ditu Ermuko "El Rocio" taldea eta Arrasateko Al Andalus-eko Aitor Escobar kitarrajolea. Aurkezpen lanak Eibarko Radio Estudio irrati kateko Juan Manuel Canok egingo ditu.

## ■ Zilarrezko garaikurra hamazortzi herritarrentzat

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartek zilarrezko garaikurra emango die 18 elgoibartari 25 alditan odola emategatik. Ekitaldia uztailaren 16an izango da Mutrikun, herri honetako emaien elkarteak 25. urteurrena ospatuko duelarik. Ospakizunen artean meza, txistulariak, lagun arteko bazkaria Kiroldegian, garaikurren banaketa, dantzaldia eta oparien zozketa izango dira. Bazkariaren zenbatekoa 2.500 pta.koa da eta izena emateko honako telefono hauetara dei daiteke: 74 02 55 Imanol Konde, 74 05 51 Begoña Izagirre eta 74 11 90/74 13 79 Ramon Maiztegi.



## Hogei elgoibartarren lanak Kultur Etxean ikusgai

Egur Arte Tailerraren erakusketak pasa berri den astelehenean, hilak 26, ireki zituen ateak. Bertan ikus daitezkeen 50en bat lan, urte osoan zehar Egurren aritu diren elgoibartarrek egindakoak dira. Teknika ezberdinekin landutako koadroek hornitzen dituzte Kultur Etxeko erakusgelako hormak, hala nola, esmalteak, oleoak eta akuarelak. Margoen egileen izenik aipatzerik ez daukagun arren, 20 bat

pertsona ezberdinek egindakoak direla esan behar da. Gehienak emakumezkoak diren arren, tartean badago gizonezkoak, eta adin aldetik ere, denetik dago, haurrak, gazteak, helduak eta nagusiak ere bai. Erakusketa uztailaren 9ra arte egongo da zabalik. Ordutegia ohikoa izango da: arratsaldeko 7etatik 9ak arte astegunetan eta 12etik 2etara bitartean asteburuetan.



**Gregorio Gonzalez eta Jose Ramon Muñoz** argazkian ditugun bi elgoibartar hauek 41 cm-ko diametroko perretxikua hartu zuten Soria inguruan. Bernabe Mujika perretxikuzale ezagunak esan digunez, "Agaricus macrosporus" motakoa da, jatekoa, baina beheko aldeko laminak belzten direnean kendu egin behar dira.

TXENTXO

## Jose Gurrutxaga beteranoa Espainiako txapeldunordea izan da

Jose Gurrutxaga Ego-Tokiko korrikalari ezagunak Huescan burutu zen Espainiako Beteranoen Atletismo txapelketan parte hartu zuen joan den larunbatean. Goizean 100



metroko lasterketan korritu zuen eta bigarren postuan heldu zen helmugara 16 segundoko denbora eginenez. Kontrako haizea zegoenez, marka ez zen aparta izan. Arratsaldean, oraingoan ere kontrako haizearekin, 200 metroko lasterketan dobletea lortu zuen Josek. Azken metroetan zaintiratu txiki bat izan zuen eta horregatik 36 segundoko marka egin zuen. Bi lasterketan Espainiako txapeldunorde geratu da Jose Gurrutxaga. Orain oporrak hartzeko asmoa duela esan digu korrikalari beteranoak, "dena den, irailean edo, berriro entrenatzen hasiko naiz, negura begira, berriro gogor hasteko". Oraingoan lortutakoa ez da makala izan, ez. Zorionak, Jose!



**Olaizaga Kirol Taldeko karatekek**, 30 bat guztira, ariketa ezberdinen erakusketa egin zuten joan den larunbatean Kiroldegiko kantxan. Binakako txapelketa modukoa izan zen eta hara hona lehen postuetan geratu ziren bikoteak: lehendabizi, Josu Duran eta Patricia Menor; bigarren, Christian del Rio eta Victor Makovka; hirugarren, Egoitz Martinez eta Jon Aranzamendi eta laugarren, Mikel Armendia eta Jon Rodriguez. Partaide guztiei domina banatu zitzairen eta lehenengoei kimono bana. Lehen sei bikoteek eskuetako babesgarriak jaso zituzten eta bukaeran sei gerriko beltz zozketatu ziren karateka guztien artean.

### ■ Dei iraingarriengatik epaia

Eibarko Epaitegiak 15.000 pta.ko isuna eta dirusari bat ematera zigortu du R.P.M., duela pare bat urte G.M. elgoibartarrari egin zizkion telefono dei iraingarri eta mingarrien ordain gisa. Isuna ordainduko ez balu, 5.000 pta. bakoitzagatik egun bateko atxiloteta jasan beharko luke. Epaketaren ostean egiaztatua geratu da R.P.M. zela G.M.ri irainduz eta mehatxatuz telefonoz deitzen ziona, Ertzantzak egindako grabazioetako ahotsa epaituarena dela frogatu baita. Telefono deiengatik jasandakoaren ondorioz G.M. andereak nerbioetako gorabeherak izan zituen, zenbaitzutan medikuaren laguntza behar izan zuelarik.

### ■ Ibilgailuen azterketa teknikoa

Udaltzaingoak bidalitako ohar baten arabera, Bergaran Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko estazio ofizial berri bat inauguratu berri da, San Lorentzoko industrialdean. Hortaz, edozein ibilgailuren IAT-ITV deritzona eskuratzeko Bergarara jo daitekeela adierazi nahi du Udaltzaingoak. Aurrez ordua eskatzeko 76 04 90 zenbakira dei daiteke, goizez 9etatik 1era eta arratsaldez 3etatik 7etara bitartean astegunetan eta 9etatik 1ak arte larunbatetan. Turismo-ibilgailu guztiek laugarren urtetik aurrera IAT-ITV pasa behar izaten dute.

### ■ Liburutegia udako ordutegiarekin hasiko da

Udal Liburutegiak ordutegia aldatuko du uztailaren 3tik aurrera. Udako ordutegia dela eta, goizez bakarrik egongo da irekita, goizeko 8etatik eguerdiko 2ak arte, hain zuzen. Mailegu-ordutegia, berriz, goizeko 10etatik eguerdiko 1era bitartean izango da. Ordutegi honekin irailaren 15era arte funtzionatuko du liburutegiak.

Alexander Garate:

## "Hain urrutira joatean bertigoa sentitzen da"

1991.eko urrian, Leioan fisika ikasketak burutu zituenean Argentinara joan zen, bertan ikasketak amaitzeko asmoz. Iazko abenduan, guztia amaitu eta gero, motxila bizkarrean hartu eta behetik gora, El

Salvador-eraino abiatu zen, han daukan lagun bat bisitatuz eta Ertamerika ezagutzeko asmoz. Ekainaren hasieran itzuli zen eta bere esperientziak kontatzeko prest azaldu zaigu, bizi-bizia duen esperientzia.

- Zure egonaldian eta bidaian, zerk hunkitu zaitu gehien?

- Normalian gehixen jotzen daben gauzetariko bat han bizi duten pobrezia da. Bizimodu gogorra daukate. Piska bat barruan sartu eta jendearekin harremanetan jarriz gero konturatzen zera zelakua dan.

- Gatazka armatu bat ere tokatu zitzaizun parean, ez?

- Bai, aurtengo otsail-martxoan. Peru eta Ecuador-en artean guda txiki bat izan zen, mugak zirela eta ez zirela, alde bateko militarrek bestera sartu zirela... Eta gerra txiki bat izan zan. Gu ere inguruan ibili ginan baina tiruak oso puntu geografiko txiki batean izan ziren eta gu 1.000 km-ra geunden. Halere, egoera hori jendearengan bizi izan gendun, oso mobilizatua zegoelako eta tirorik ikusi ez arren, egoera hori bizitzea nahiko gogorra da.

- Pobrezia eta gerren artean, anekdota bitxirik izango da, ez?

- Bai, bueno, anekdota asko. Normalian Ertamerika guztian kotxeak gidatzen zoruen pare ibiltzen dira, Ecuador-en



**"Jakinduria haundia ekartzen da. Beste modu batean bizitzen ikasten da"**

batez ere. Behin autobusean nijuala, suge bat tokatu jakun kaminua pasatzen eta autobuseko txoferrak bolantazo haundi bat eman zaban suge hori hiltzeko, barruan geunden guztiak hankaz gora jarriz.

- Solidaritate kasu aparta, beraz?

- Solidaritatea? Horrek ez dauka solidaritatearekin zerikusirik. Sugea txarra zan eta hil egin behar zan eta punto.

- Anekdotak alde batera utzita, zer inpresioarekin joan zinen dagoeneko zure etxea ere baden Argentinara?

- Batez ere bertigoa sentitzen da. Beti entzuten dituzu gauzak joan aurretik baina batez ere bertigoa sentitzen duzu ez dakizulako nora zoazen, zer topatuko duzun eta ez dakizu nolakoa izango dan haura. Gero konturatzen zera daruazuzen aurreritzi danak aurreritziak besterik ez diazela.

- Lau urte eta gero etxera itzultzean, zer utzi duzu han?

- Uf, hainbeste gauza! Lau urte geratzen dira han eta lau urteko esperientziak eta lagunak, batez ere lagunak.

- Eta zer ekarri?

- Gauza asko, ganga mordua. Barruan ere gauza asko; jakinduria, bizitzeko era ezberdinak, beste era batera bizitzen ikasten duzu eta, era berean, hemengo bizimodua kanpotik ikusi ahal izatea, beste ikuspuntu batetik.

- Eta, nolakoa ikusten da?

- Ba... Nahiko konplikatua, ez dakit nola esan. Gauza gehixegi behar degu bizitzeko. Ez dakit, oso konplikatua da.

- Azken galdera, nola egiten dute zaunka Argentinako txakurrek?

- Etee... guau!

XABIER GORRITI



**FERISALTSAN**

## San Juan eguneko feria

**E**kainak 24. San Juan eguna. Hil hau luzeagoa izan dela iruditu zaio askori, 30 egun izanda ere, bost aste izan baititu. Azken zapatuko feria, beraz, joan den astean izan zen. San

Juan suen ostean euria egiten du sarri, aurtan, ordea, benetan egun eguzkitsua ateraz. Ferian jendea elkartu zen, hileroko aurpegi berberak ikusi ziren, elkar ikusi zuten, bazkaldu, bueltatxo bat


eman, ganadua aztertu, akaso zerbait erosi eta arratsalde partean, etxera buelta.

Txahal txikiak zuhaitzaren ondoan babeska bilatu nahi zuten. Hil honetan, bertoko okelari buruz arituko gara gehigarrian. Bertan jaiotako, hazitako eta hildako ganaduari kalitatearen eusko labela jartzen zaio, baldintza batzuk betetzen baditu, noski. Era batera edo bestera, uztaile ere etorriko da eta horrekin batera oporren aurreko azken feria ere. Eta, uste baino lehen, San Bartolome jaietako feria handiaren berri ematen izango gara "Kale zulotik baserrira" gehigarri honen lehen orrialdean.



## Tomate ederrak ortuan eta mahaian

Uda bete-betean sartu zaigu. Azken egunotako beroari esker ortuko fruituak eder-ederrak loratu dira. Argazkiko tomateak Zeleta baserrian hazitakoak dira. Anselmo Salazar "Moli" k esan digunez, tomate landare mota ezberdinekin esperimentatu ondoren, neurri handiko fruituak ematen dituen hibrido-errustiko motako tomate goxoak landu dituzte. Egun hauetan guztira 13 kiloko 24 tomate jaso dituzte, argazkian ikus



daitezkeen hauek, hain zuzen. Landare mota honek tamaina arrunta baino tomate handiagoak ematen ditu. Tomate hauek, gainontzeko txikiagoak bezala, salgai jarriko ditu "Moli" k, entsaladan zein hutsean jateko ezin aproposagoak direlarik.

# Begiratzan al diozu okelaren eusko labela-



## Okelaren eusko labela

Labela duen abelgorri okela Euskal Herriko okela da, kalitate maila handikoa. Gustu eta zuku handikoa, samurra eta %100 naturala da, sistema tradizionalaren bidez lortzen baita, hau da, elikadura asko zainduz eta abelburu bakoitzaren jarraipen hurbila eginez. Garantia osoko okela da, Eusko Labela lortu ahal izateko kalitate ezaugarri batzuk bete behar baititu.

Kalitatearen Eusko Labela duen abelgorri okela "Baimendutako Harategietan" soilik saltzen da. Eta horixe da garantiarik handiena. Abelgorri okela Kalitateko Eusko Labelaren sisteman sartzea aukeratu duten harategiak dira, horretarako konpromezu garrantzitsuak bereganatuz. Horrela, baimendutako harategiek, bezeroei betidanik eskaintzen zaien garantiari kalitateko Eusko Labelaren Kontseilu Arauemailearen garantzia gehitzen diote. Kontseilu honek Label okela salmentara iritsi arte kontrolatzen, sailkatzen eta identifikatzen du. Kontseiluak merkaturatzen eta ekoizpenean burutzen dituen kontrolak baimendutako harategietan egiten dituenekin osatzen dira. Batetik, harategietako balantzeta sistema informatiboa ezarri da, Label Okelaren salmenta kontrolatu ahal izateko. Bestetik, era programatu batez ikuskatzaile bereziek zaintzen dute harategi bakoitzak "Labela duen abelgorri okelaren arautegia" behar bezala bete dezan, kontrol ziklo osoa horrekin burutuz.

Baimendutako harategiek ezagutarazteko, Labelaren ikurra eta baimenaren zigilua darabate kanpoaldean, eta Kalitateko Eusko Labela duen abelgorri okela bereziki nabarmentzen da. Alde batetik, okelan bertan, izozkailuan bai eta erakusketarako aldean ere. Bestetik, salmenta bakoitzean, labela duen abelgorria erosten duzunean, balantza informatizatuak Eusko Labelaren Etiketa-Ziurtagiria ematen du eta zure harakinak okelarekin batera eskuratuko dizu. Etiketan bertan okelaren izendapena, pisua, data eta abar azalduko dira, zure erosketaren garantiarik onena izanik.

### FERMIN JAUREGI

Elikagaien Kalitateko Eusko Labelaren Kontseilu Arauemailearen Produktu Gestorea



### Mari Fran Garcia 41 urte, etxeakoandrea

Hemengo produktuak merezi du. Freskotasunari begiratzan diot eta okela ezagutzen ez dudanez harakinak esaten didanaz fidatzen naiz.

### Maria Izagirre 73 urte, etxeakoandrea

Horri bai. Ahal doten guztietan bertakua, eta gaztiana gainera, samurra eta ona izan deixela. Karutxuaua bada ere ez diot prezioari begiratzan.



### Mari Carmen Varona 48 urte, etxeakoandrea

Labela duen okela erosten dut, oilaskoa eta antzekoak ezik; ez dakit publizitateagatik edo zergatik. Baina egia da bertokoak ur gutxiago duela eta hobea dela.

### Mari Angeles Zialtzeta 54 urte, etxeakoandrea

Etixian hazitakua jaten dou geuk. Karnizerixakuakin aldia kristona dao, gustuan, erretzeko eran... Gauza eskasa jaten ohituta gaude, eta oin ari gera jabetzen.



### Ana Mari Arriola 54 urte, etxeakoandrea

Ez, gainera Elgoibarren gauza berrixa da. Igual oin begiratu dion baina beti ahizpana juten naiz eta hamengua eukitzen dabanez, ez dot dudarik eukitzen.

### Mercedes Juez 54 urte, etxeakoandrea

Ez, ez daukat lehentasunik, gustuko okela erosten dut. Piezak ezagutzen ditut eta itxuraren arabera aukeratzen dut. Berdin zait nongoa den.



# GARAGARZA GOIKOA

Orain urte asko, Francisco Muguruza eta Encarnación Alberdi senar-emazteak Garagarza-goikoa baserrira joan ziren bizitzera, San Lorentzo auzora. Bost alaba izan zituzten eta horietako bat, Miren, maiorazgoa bera, geratu zen baserrian bizitzen. Jose Etxanizekin ezkondu eta bi seme izan zituzten.

**S**eme biak ezkondu eta kalean bizi dira, Azkoitian bata eta Elgoibarren bestea. Mirenen esanetan, gainera, “nik ez naban nahi eurak basarri-xan bizitzerik, burutik pasau ere ez jakue ein”. Izan ere, Miren maiorazgoa denez bera geratu behar izan zen baserrian, “gustura, baina neri gustauko jatan beste nunbaiten lan ein eta hemen lo, baina zelan hori ez doten euki...”. Halere, “baserri-xan arnasbide gehixao dakat kalia baino. Hori gustatzen jata, baina kalia dauan kultura ekarriko neuke, jakindurixia”.

Mirenen aita zena, Francisco Muguruza, umore handiko gizona omen zen, “salaua zan bera, a tope! Konbersaziua gustatzen jakon asko eta erderaz eitxia, ez zaxixan asko baina hala ere sake ederra zakan, harekin danok eitxen genitxun barriak!”. Francisco bizi zen garaian orain baino ganadu gehiago zuten, “gero gutxitu egin genduazen ze gizonak kalia eitxen zaban lan eta ezin zan dana ein. Oin bera basogarbitzian ibiltzen da eta nik ortuko eta etxeko lanen arduria dakat”.

Ezkonbidaitan egin zuen senar-emazteak azken bi daia, “oin ezin leike. Ama dakau etxian eta ezin bakarrik laga”. Ez pentsa horregatik aspertzen direnik, “nik ez dot



Garagarza-goikoa San Lorentzo auzoan dago.

## GARAGARZA GOIKOA

- **AUZOA:** San Lorentzo.
- **SORRERA:** 1945. urtea.
- **BIZILAGUNAK:** Encarnación Alberdi, 86 urte; Jose Etxaniz, 66 urte eta Miren Muguruza, 61 urte.
- **LUR HEDADURA:** 11 hektarea.
- **ANIMALIAK:** behia, txahala, sei oilo eta 12 oilasko.
- **PRODUKTUAK:** baba gorria eta zuria, barazkiak, patata...
- **BIZIMODUA:** Jose Etxaniz jubilatua dago.

## SABRINA

Bati baino gehiagori, beharbada, izen hau entzutearekin ba, Italia aldeko abeslari ezagunaren irudia etorriko zaio burura. Dirudie-nez, Jose Etxanizi gauza bera gertatu zitzaion orain duten behia erosi zuenean. Behi esnetsua da, esne asko ematen du, errape ederreko behia da, beraz, horregatik okurritu zitzaion Joseri Sabrina izenaz bat-taiatzea. Horrezaz gain, txahalak ere badu izenik, Martintxo, “jaiotzen diren egunean zein santu den, haren izena ipintzen diogu”.

ezagutzen zer dan aburrimentua. Ez dakat astirik. Beti dao zeozer eitxeko eta bestela irakurri, bilobentzako jertsiak ein...”, azaldu digu Mirenek. Jaiegunak ere oso gustuko ditu Mirenek, “Gabonak batez ere. Familixa guztia elkartzen gera hemen. Eta San Bartolomiak ere gustatzen jataz, baina lehen ziazan bezela, jende gaztia eta nagusixak Plazan dantzan”.

Abere gehiegi ez dute baina gutxi horiek oso estimatuak dira, “kariño haundixa hartzen diozu txahal txixari, ume bati bezela. Oilueri ere bai, baina hil bihar diazenian ez dao erremedixorik, hobe ez pentsatzia”. Txahala hiltegitira eramaten dute, “urtian bat hil eta urte osorako okelia konjelatzen dogu”. Oiluak, berrix, “neuk hiltzen ditzut”.

Baserrian bizitzeak badi-rudi belarren ezagupen handiagoa eman behar duela, eta ziur asko horrela izango da askotan baina, “neuk mantzanila ura hartzen dot baina beste ezer ez. Behin pasmo belarrak geizki ein zian eta medikuak errieta egin zian. Ordutik ez dot beste ezer hartu izan”.

# Angel Arrizabalaga:

## "Bertoko produktuan sinisten dotelako saltzen dut euskal okelia"

**A**ngel Arrizabalaga Armueta harategikoa da. Bera, Txomin harategiarekin batera "Euskal Okela" denominazioa duen haragia saltzen hasi berri da orain hiru aste. Abelgorri okelaren Kalitateko Eusko Labela, bertako produktua indartzeko eta ezaugarri naturalak bultzatzeko pentsatua dago. Oraingo honetan Angelekin izan gara guzti honen nondik norakoak ezagutzeko asmoz.

### - Zer da eusko labela?

- Eusko Jaurlearitzak bultzatu daban gauza bat da, Euskal Herriko produktua ezagutarazteko eta bultzatzeko eta bertako produktua era naturalez, osagarri kimikorik gabe hazita dagoela esan nahi duena.

### - Hiru aste daramazue zuek.

- Eusko Labelarekin bai, baina nik beti saldu izan dot bertako okela nere harategixan. Elgoibarko eta inguruetako baserrietak. Nik neuk ere San Migelen badaukat ganadurik. Ur-tian 12 txekor inguru hiltzen ditzut, neuk hazitxakuak.

### - Zer behar du okelak Eusko Labela jasotzeko?

- Ez da pentsatu behar hemen hazitxako txekor guztien okelak jasotzen dabala euskal okelaren denominazioa. Lehenengo txekorrei sei hilabetez baserriko ikuiluan hazi behar da, pentsu naturalakin lodituz, besteak beste, belar freskoa edo lehorra, lastoa, artoa, garia, garagarra... Gero, mataderuan, albaitarixak zehazten dau Eusko Labelan pegatinia

jarri ala ez.

### - Pisuaren arabera al dago?

- Horrek ere badu eraginik. Adina eta pisua, hil ondoko kanalaren konformazioa, gatz kopurua, kolorea, ezaugarri kimikoak (PH) eta osasun-ezaugarriak, kontserbazio ezaugarriak eta abar hartzen dira kontuan. Txahala, adibidez, 9 hilabetetik 18ra bitartekoa izan behar da eta kanalak 210 kg.ko pisua izan behar du gutxienez.

### - Hiltegitik harategira joan eta...

- Saldu aurretik sei egun izozkailuan izan behar dogu, okela hil berria gogorra baita eta samurtzeko. Gero, bezeroak garbi izan deitan erosi dabena labela daraman euskal okela dela, pegatina bat jartzen jako.

### - Kontrolik ba al daukazue?

- Bai. Okela pisatzerakoan, pegatina bat ateratzen da eta horrekin batera, pisatzeko makina ordenagailu zentral batekin dago konektatua. Zuk hiltegitik hainbeste kilo ekartzen ditzuzu eta hori baino gehixo ezin dozu



saldu, noski. Ordenagailu horretan saltzen ditzuzun kiloak gehituz doaz eta ezin da inolako tranparik ein, ezin dozu Eusko Labela duelakoan, kanpoko okelarik saldu. Oso ondo kontrolatua dago dena.

### - Eta jendeak ezagutzen al du?

- Orain hasi berri gera eta ondio-kan dana ari gera azaltzen. Baina nik beti saldu izan dot bertako okelia eta bezeroak badaki hori. Nik uste ona dela bertoko produktua indartzia. Kalitate hobea du, kanpotik etorritakoa batek daki nola hazita dagoen! Piskat gehixo ordaindu behar bada ere, merezi du, dudarik gabe. Gainera, ez pentsa nik ezer irabazten dodanik honenkin. Labelaren barruan sartuta dagoen harategiak 5.000 pta. ordaindu behar ditzu hilero eta baserriarrak 1.250 pta hiltzen daban txekor labeldun bakoitzeko. Nik bertoko produktuan sinisten dot eta hemengo produktua bultzatu behar delako egiten dot.

■ **JATORRIA:** Perun, Bolivian eta Ecuador aldean kokatzen da patataren jatorria. Espainiarrek XVI. mendean ekarri zuten baina Europan XVIII. mende aldera hedatu zen. Patata izena jarri zioten espainiarrek antz handia zuelako "batata"rekin.

■ **FAMILIA:** Solanaceae

■ **IZEN ZIENTIFIKOA:** Solanum Tuberosum L.

■ **KLIMA:** Klima epel-hotza komeni zaio

eta ur asko behar du.

■ **ZOLUA:** Lur arinetan edo erdi arinetan hobeto hazten da. Lur silizeoziloetan, humus handiko lurretan eta lur-azpi sako-neko lurretan. 5,5-6 bitarteko PHa oso ondo onartzen du.

■ **EREINTZA:** Abenduan eta otsailean ereindako hazia apiril eta ekain bitartean jasotzen da. Apirilean eta maiatzean ereindakoa, berriz, uztail eta irailean.





## Gillermo Iraegui

### Iraegui errotuluak



● **Zer dela eta errotulu tailer bat?**

▶ Merkatuan beharra zegoelako, nahiz eta guk denbora daramagun lan honetan.

● **Zenbat ordu egiten duzu lan?**

▶ Teorian zortzi baina praktikan auskalo.

● **Zenbat kosta dezake errotulu**

**batek?** ▶ Errotulua gehi atzeko argia eta 6 metrokoa izanik, 300.000 pta. Plato argitsu arruntak 60.000-80.000 pta. inguru.

● **Non jartzen dituzue batez ere errotuluak?**

▶ Lehen furgonetetan, orain aldiz, kamioi, industria eta erakundeetan.

● **Zerk garestitzen du errotulua?** ▶ Euskarriak eta markajeak.

● **Zeri ez zenioke errotulurik jarriko?** ▶ Denerako errotuluak daude, zerbait esateaz gain, apaingarriak izan daitezke.

● **Egin duzun errotulurik politena?** ▶ Denek izan dute zerbait berezia, errotulu bakoitzak istorio bat baitauka.

● **Zerk egon beharko luke ilunpetan?**

▶ Argi izpi batek gutxienez egon beharko luke.

● **Eta zerk argitan?** ▶ Koloreak.

● **Tabernak ala dantzalekuak?**

▶ Ez naiz dantzalekuen lagun musika jasangaitza delako eta zulo bat delako. Tabernak monotono xamarak dira.

● **Argitasuna ala iluntasuna?** ▶ Argitasuna.

● **Zer gosaltzen duzu?** ▶ Kafea edo zumo bat.

● **Nora joango zara oporretara?**

▶ Ez dakit, azken momentuan erabakiko dut.

● **Kolore bat?** ▶ Berdea.

● **Errotuluak argiarekin ala argirik gabe?**

▶ Egunerako argirik gabe eta gauerako argiarekin.

● **Zein errotulu jarriko zenioke Elgoibarri?**

▶ Burdina, egurra eta harriarekin jokatu beharko genuke.

● **Zer dela eta ez duzue errotulurik zeuen tailerrean?**

▶ Kanpoko lanari lehentasuna eman diogulako eta gurea nolabait baztertuta daukagu. Dena den, ia egina dago eta laster batean jarriko dugu.

MAITE IRIONDO

## OPORRAK

### DOINUA:

Arratsaldeon...

Urte guztian zai egon eta  
ate joka da udara.

Jendea dabil aztoraturik,  
orain hona gero hara.

Batzuk mendira joango dira  
beste batzuk hondartzara.

Oporrak opor diren artean,  
pozik egon behar gara.

Agentzietan bidaiatzeko  
bada hamaika aukera.

Tunez ta Cancun, Oslo, Mallorca  
edo Marruecos aldera.

Baldin ikasi nahi lukeenak  
gure herriko hizkera,

barnetegi zein euskaltegian  
landu dezake euskera.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Ekainaren 25ean hil ziren **MARIA AROZENA UNZUETA**  
eta **ROSA MARI RIANO AROZEN**Aren sendiak  
**ESKERRAK** eman nahi dizkizuegu haren hiletara joan zinetenoi,  
samin agurrak bidali eta une latz honetan  
lagun izan zaituztegun guztioi.



## Udalak Fundiciones Urasandiko lurak erosi ditu

Udalak Fundiciones Urasandi lantegiaren terrenoak eskuratu ditu 16.500.000 pta.ren truke. Aipatu lantegiaren terrenoak eta ondasun inmuebleak 51.132.000 pta.ko balioa dute.

**F**undiciones Urasandi lantegiak porrot egin zuenean, Seguritate Sozialak ondasun guztiak enbargatu zizkion izugarritzko zorra zuelako eta orain hilabete batzuk enkantean atera zituen.

Udaletxeak terreno horiek enkantez saldu behar zirela jakin zuenean, parte hartzea erabaki zuen.

Gobernu Batzordeak, alkatearen dekretuz, ondasun guztiengatik 16.500.000 pta.ko eskaintza egitea erabaki zuen apirilaren 24an. Kontuan izanik ondasunen balioa 51.132.000 pta.koa dela, eskaintzak baxu samarra ematen du baina, hala ere, enkantean egin zen eskaintzarik

altuena izan zenez, azkenean, Fundiciones Urasandi lantegiko terrenoak Elgoibarko herriaren esku geratu ziren. Hemendik aurre-

ra proiektu bat gauzatuko da lur horietan herriaren zat probetxuzkoa izango den zerbait egiteko, Urasandi auzorako sarrera berri bat, alegia. Horretarako, beharrezkoa izango da Madalako bidegurutzean rotonda bat egitea. Gaur egun bada zona horretan bide bat Urasandira oinez



■ ■ Hemen egingo da Urasandirako sarrera berria.

igotzeko. Proiektu berriaren arabera, bide berria hortik abiatuko litza-teke, Anayak fabrikaren azpitik pasatu eta Muebles El Almacén eraikuntza kokatzen den parean, gutxi gora-behera, Urasanditik Pilar-era doan bidearekin bat egingo lukeelarik.

### Badator hondartzako trenak!



Oroimena  
freskatzeko

**Udako ordutegia**

**Hondartzarako zerbitzuak**

**Ordutegi berriak**

**Ermua-Eibar-Deba**

Ordele: ezarri zure gaitasuna

## San Bartolome eliza (3. fasea)

■ 1728an Peñafloidako kontea, Azkoitiko “Zalduntxoan” aita, elizaren ordezkari gisa ageri da. Horren zergatia azaltzeko konteak Elgoibarren zituen jabetzak aipa daitezke:

“Elormendi” etxea, beste hiru etxe, baratzak, lurrak eta mendiak, Olasoko parrokiako lehenbiziko hilobia, Lerun, Olazabal, Ansola, Ensosieta eta Aranbeltz baserriak eta 1000 dukateko kapelau-patronatoa.

■ Larraza anaiek hezetasuna kentzeko obrak egin ondoren, kanpandorrearen lehen zatian klaustroak eta arkupeak eraikitzen jardun zuten. 1730eko abuztuaren 9an Pedro Osoro eskribauak adierazi zuenez, Tomas Larraza ebanjelioaren aldeko dorrearen kontrahorma bat ixten hasi zen.

■ 1734ko apirilaren 13an

Udaleko bilera ireki batean dorrearen eraikuntza Lucas Longaren diseinua jarraituz ez zela egiten ari eztabaidatu zen eta haren diseinua jarraitzeko neurriak hartu ziren.

■ 1736-38 urteen artean Larraza anaiak dorreko arkuak eta sakristia berria eraikitzen hasi ziren bai eta klaustroa ere, Ignacio Iberoren planuak jarraituz. Beranduago koruko eskaileko burdin-sare abalaustratua (407 k.a.) bukatu zen. Tomas Larraza hil ondoren Cristobal Elorzak ordezkatu zuen eta Antonio Larrazarekin batera obrak jarraitu zituen sakristia berriko ganga eginaz. Era berean ataria bukatzeko data ipini zen, 1744ko ekainaren 22a, hain zuzen.

PELLO ARRIETA



## Norberto Zabala

Pintorea (1933-1989)



- Eibarren jaio zen 1933. urteko abenduaren 6an.
- Txikitatik gogoko zuen marrazketa eta margoa. Horregatik, ikasketak ildo horretatik bideratzea erabaki zuen.
- Bernardo Ezenarrokekin pintura eta marrazketa ikasi zituen.
- Beranduago Bernardo Ezenarrokekin lanean jardun zuen pintura eta margoen atalean.
- Hainbat urte Ezenaroren lantegian eman ondoren, bere kabuz negozio bat jartzea erabaki zuen. Honela, “Pinturas Norberto Zabala” sortu zuen, pinturen salmentarako denda.
- Elgoibarrera ezkondu zen eta bi alaba izan zituen.
- Zaletasunen artean kirolak zuen lehentasuna Zabalaren bizitzan. Pilota zuen gogoko eta ehiza ere bai. Sarritan joaten zen eskopetarekin ehizara.
- 1989. urteko otsailaren 15ean hil zen.



**Udaldian 95**

Eskolaurrekoak  
Uztailaren 3an  
10etan Plazan

**Udaldian 95**

OHoko 1-2  
Uztailaren 3an  
9,30etan Plazan

**Udaldian 95**

OHoko 3-4-5  
Uztailaren 10ean  
9,30etan Plazan

ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO IZARRA. LAGUNTZAILEAK: ELGOIBARKO UDALA / GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## MOTZAK

### Euskadiko Bolo Txapelketa

1995eko Euskadiko Bolo Txapelketari dagokion azken tiraldia jokatu da uztailaren leian, larunbata, San Migel auzoko bolatokian. Hamasei talde arituko dira Euskadiko Txapela lortzeko lehian, hiru bizkaitarrak, zazpi arabarrak eta sei gipuzkoarrak. Bi tiraldi mota izango dira, "hiru txirlo" eta "Arabako boloa". Bosna tiratzailez osatutako taldekide bakoitzak 4 txandatan aritzeko aukera izango du eta orain arteko hiru tiraldietan eta San Migelekoaren ostean, punturik gehien lortzen dituen taldea izango da txapeliduna. Txapelketa arratsaldeko 5etan hasiko da, baina hiru ordu lehenagotik bolatokia irekita egongo da entrenamenduetarako.

### Arrantza txapelketa

La Unión Arrantza eta Ehiza Elkartek bazkideentzako arrantza txapelketa antolatu du Beduako errekan. Uztailaren 9an, igandea, burutuko da goizeko 10etatik 2etara bitartean. Beharrezkoa da arrantzarako baimenaren eta Arrantza Federazioko lizentziaren jabea izatea. Izena ematerakoan 1.000 pta. ordaindu beharko dira.

### Eskubaloit Taldearen zozketa

Elgoibarko Kirol Elkarteko Eskubaloit taldeak egindako zozketan 06562 zenbakia izan da saritua. Saria Gabi jatetxean 4 pertsonantzako 40.000 pta.ko afaria da. Zenbaki sarituaren jabeak hilabeteko epea dauka saria jasotzeko.



Ismene Fulgencio:

## "Kirola nere erritmora eixia gustatzen jata"

■ **Espero zenuen Nahaste Borrastean irabazterik?** - Keba, parte hartzera jun nitzan. Ez nakixan zeintzuk hartu bihar zaben parte eta bukatu nabanian bateon batek komentau zian irabazi ein nabala.

■ **Sekula ibilita zeunden Nahaste Borrastean?** - Ez, aurten lehenengo aldiz. Neska gutxi zaozela eta, ia horrela jendia animatzen zan.

■ **Zer izan zen gogorrena?** - Bizikleta. Bizikletan ibiltzen naiz, baina nere erritmora. Lasterketan jendiari jarraitzen geizki pasau naban momentu batzuetan. Zakuakin gutxiao sufritu naban, gainera aldia dao 25 kilokua izan edo 10 kua. Eta saltaka, ondo.

■ **Errepikatzeko asmorik?**

- Datorren urtian, ahal bada, bai.

■ **Kirol ezberdinak praktikatzen dituzu.** - Serixo bat ere ez; ez daukat ez ordutegi ezta entrenamendu fijosik. Gogua daukatenian eitzen dot. Astian zihar bizikletan ibiltzen naiz eta korrika eitzen dot, eta astebukaeretan mendira juten naiz. Ahal doten astebukaera guztietan mendira irtetzia gustatzen jata.

Inguruko mendixak ezagutzen gabiz oin, Egin-en atera zaben gida batekin.

■ **Gogokoen duzun kirola, beraz...**

- Mendixa. Inguruko mendixetatik aparte, Pirineuetan ere ibili



gera. Belagua ingurukuak: Hiru Erregeen Mahaia, Atxerito, Petretxema, Perdido, Taillón eta, iaz, Infiernos. Orain Balaitus eta Anetora igotzeko gogua daukat.

■ **Eskalada egin duzu sekula?**

- Probatu det rokodromuan. Baina ez jata gehixei gustatzen.

■ **Zein kirol nahiko zenuke ezagutu?** - Ez dakit, badaude ezagutu ditzuten beste batzuk, piraguismua, puentig-a... baina ez nabe gehixei erakartzen.

■ **Sekula egingo ez zenukeen kirol bat?** - Boxeua. Leku itxixetan eitzen dianak, baina batek daki! Naturarekin kontaktuan dauden kirolak eitzeko joera daukat.

■ **Kirolrik gogorrena?** - Uste dot mendixa nahiko konpletua dala, baina gogorra edozein kirol izan

leike segun eta zein planetan eitzen dozun. Kirola nere erritmora eixia gustatzen jata.

■ **Aurrera begira, lasterketaren batean hartzeko asmorik?**

- Baleike, karrera popularrak asko gustatzen jataz.

• **Adina: 24**  
 • **Kirola eta juergak konpatibleak al dira? Bai, kirola ez da neretzat sakrifizioa.**  
 • **Kirolerako egun bat edozein egun, gogua daukatenian.**

**IRAKASLE ELKARTEA**

# ZEZENBIDE

auto-eskola

San Frantzisko 43,  
 ☎ 74 27 20



## Bi herritar omendu zituzten Finalista Egunean

**E** hundaka elgoibartar bildu ziren joan den igandean San Pedroko Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatzen duen Finalista Egunearen bueltan. Morkaikora igo ondoren, mendigoizaleek salda eta txorizoa dastatzeko aukera izan zuten Karakate elkar-tekoek Hiru-Iturrin prestatutako hamarretakoan. Segidan, autoz igo zirenak eta mendizaleak San Pedroko ermitara inguratu ziren, meza entzun ostean, Morkaikoren alde lan ugari egindakoak ziren Primitivo Martinezi eta Manuel Ullibarriri omenaldia egiteko asmoz. Haritz Dantzari Taldearen eta Udal txistularien saioaren ostean eman zitzaion omenaldiari hasiera. Bi omenduen alargunak hunkitu egin ziren oroigarria jasotzean Pako Iriondo Federazioko lehendakariaren eta Morkaikoko presidente den Andoni Goikolearen eskutik. Ohi

den bezala, dominak banatzeari ekin zitzaion ondoren. Azken urtean 10 mendi egin dituztenak 17 izan ziren. 15 menditara igotzeagatik jaso zuten domina beste 25 mendizalek. Eta 24 domina banatu ziren 20 mendi egin dituztenen artean. Altuerari dagokionean, 20.000 metroko mendiekin 28 mendizaleren izenak aipatu zituzten. 40.000 metrori dagozkion dominak 9 mendizalek jaso zituzten eta azkenik, azken 5 urteotan 100 mendi egin dituztenek jaso zuten domina. Lagun arteko bazkariak eta Mautitxa txarangaren jardunak jai giroa alaitu zuten. Ezbeharririk ere izan zen. Jose Luis Ribate mendizale elgoibartarraren emaztea zen, Rosa Maria Riañoren eta honen ama Maria Arozenaren heriotzek saminak eta tristurak jota utzi zituen Finalista Egunean parte hartu zuten mendizaleak.



■ ■ Omenduen alargunek emozionaturik jaso zuten Morkaikoren oroigarria.



■ ■ Mautitxa txarangaren doinuak entzun ziren igandean San Pedroko zelaian.

### AGENDA

#### MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

##### 1, larunbata

10:15 Pedrusko - Ametsa Karkis - Lagun Toki  
11:15 S. Pitxote - Lagun Onak Oraiko - Otro Mas  
12:15 Tropiko - Xare Astigarraga - Tongo

##### 2, igandea

10:15 Chapuzas - Patxi  
11:15 Jack Daniels - Txirristaka  
12:15 Chemolino Rojo - Gruas Pana

##### 6, osteguna

18:00 Chapuzas - Jack Daniels  
19:00 Chemolino Rojo - Patxi  
20:00 Gruas Pana - Txirristaka

#### URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA (finalak)

##### 1, larunbata Olaizaga kiroledegian

17:00 La Maxia - Kucky Luke COPA  
18:00 Karkis - Garajes Garcia LIGA  
19:00 SARI BANAKETA

### EMAITZAK

#### MINTXETAKO I. FUTBOL TXAPELKETA

**A TALDEA:** Pedruskos - Xare (atzeratua)  
Lagun Onak, 5 - Tropiko 0  
Ametsa, 2 - Spartak Pitxote, 0  
**B TALDEA:** Txapuzas, 3 - Txirristaka, 2  
Patxi, 1 - Gruas Pana, 4  
Jack Daniels, 2 - Txemolino Rojo, 8  
**C TALDEA:** Karkis, 6 - Tongo 0  
Otro Mas, 1 - Astigarraga, 5  
Lagun Toki, 1 - Oraiko, 0

#### LAGUNAK PILOTA SARIA

##### 1, larunbata Plaza Handian FINALAK

Benjaminak: Iban Murua - Markel bergara  
Alebinak: Iker Martinez - Axier Elustondo  
Infantilak: Josu Orbea - Josu Gerrikabeitia  
Kadeteak 4 erdiko txapelketa: Balzola - Joan Garate

## “Parque Jurásico” filmearekin hasiko da uztailaren 7an aire libreko zinea

Joan den astelehenean eta asteartean muntatu zuten uztailean, abuztuan eta irailean zehar aire libreko zinean emango diren filmeak ikusteko beharrezkoa den azpiegitura. Plaza Handiko frontoiaren alboko horman 10x5 metroko pantaila jarri dute eta pare-parean, pantailari begira, proiektzio gela txikia. Seigarren urtea beteko du aurten aire libreko zineak, eta honenbestez, 73 filme eman ditu Ongarri Zine Klubak metodo honen bidez. Herriko Antzokiko azken zine emanaldian "Historias del Kronen" pelikula proiektatuko da asteburu honetan.



### AIRE LIBREKO ZINEA

#### Uztaileko pelikulak

- Uztailak 7 “Parque Jurásico”
- Uztailak 8 “Picapiedra”
- Uztailak 14 “Speed”
- Uztailak 15 “Lehoi umea”
- Uztailak 21 “La máscara”
- Uztailak 22 “El Rey León”
- Uztailak 28 “Rapa Nui”
- Uztailak 29 “Star Gate”

ORDUA: 22,15

LEKUA: Plaza Handia

**2.000** watioko soinu potentziak egingo ditu entzungai 22,15etan hasiko den zine-emankizuneko pelikulak. Uztailean 7tik 29ra bitartean zortzi pelikula ezberdin emango dira, bat ostiralean eta beste pelikula ezberdin bat larunbatean. Hauetariko egunen batean euria egingo balu, igandera atzeratuko litzateke pelikula horren emankizuna. Aurten lehen aldiz, euskarazko pelikula bat ikusteko aukera izango dugu, uztailean 15ean, “Lehoi umea” izenekoa. Uztailean zehar ikusi ahal izango diren pelikulak adin guztietako jendearentzako modukoak izango dira, batez ere, haurrei zuzenduak. Ongarri Zine Klubekoek azaldu digutenez “asmoa pelikula bisualak ematea da, adimenari baino, ikusmenari zuzenduak doazenak”.

Emankizun guztiak Plaza Handian izango dira, gaueko 22,15etan hasita. Udalak 800 aulki alokatuko ditu horretarako, batzabeste 700 bat leku betetzen direlarik.

#### Abuztuan eta irailean ere bai

Aire libreko zineak etena egingo du abuztuko oporretan. San Bar-

tolome jaien aurretik berriro hasiko dira emankizunak, jaietan ez da saiorik egongo eta ostean, berriro hasiko da. Epealdi honetan denboraldian zehar arrakasta izan duten filmeak emateko asmoa du Ongarri Zine Klubak eta tartean estreinuak ere bai.

Aurrekontuari dagokionean, 3 milioi kostatuko zaio Udalari aire libreko zinearen muntaia eta desmuntaia osoa, aukien eta filmeen alojera, publizitatea eta Ongarri Zine Taldekoen gestioagatikoa. Ongarrikoek 17 proiektzio emango dituzte uda honetan, sei urte hauetan emandako pelikulak guztira 90 izango direlarik.



■ ■ Parque Jurásico da emango den lehen filmea. Egun oso bat behar izaten dute frontoiko horman pantaila jartzeko.

## Altzolak San Pedrori eman dio jaien errelebua

**S**anpedrotarrak zaindariaren omenezko jaiak ospatzen ari dira egunotan. Zaindariaren eguneko ohiturei jarraiki, ostegunean, San Pedro egunean, meza nagusira-ko atera zuten santua. Auzoan zehar Santuarekin prozesioan buelta eman ondoren, meza eta lagunarteko bazkaria izan zuten. Bolo tiraldiak ere ez ziren falta izan eta Olloki eta Ziolar trikitalariek egun osoko jarduna izan zuten bertakoak alaitzen. Gaur, hilak 30, bertso afaria izango dute Egaña eta Lizasorekin eta ondoren Errekalde anaiekin erromeria.

### Herri kirolak eta gaupasa

Jai egitarau bariatua eta konpletua dago San Pedron astebukaerarako. Larunbatean haurrentzako jolasak izango dira arratsaldeko 5etatik aurrera. Gaueko

11,30etan bolo tiraldiak hasiko dira. Sariak lehen laurek jasoko dituzte, hamar mila, zazpi mila, bost mila eta hiru mila pezetarekin eta bosgarrenarentzat sorpresa egongo da. 11etan hasita baita ere, Azkonabieta eta Jokin trikitalariak goizaldera arte inortxo ere etxe aldera erretiratu ez dadin ahaleginduko dira panderoa eta soinua joaz.

Igandean herri kirolak izango dira nagusi. Ahari jokoa eta pilota partiduak burutuko dira eguerditik aurrera; arratsaldean, berriz, idi demak izango dira, Ixama, Alzubarren eta Artadialderen partaidetzarekin. Lehen idiak 115.000 pta.ko saria jasoko du, bigarrenak 110.000 pta.koa eta hirugarrenak 100.000 pta.koa. Jaiak amaitu aurretik janariz eta edariz beteriko orgatila zozketa-tuko da.



■ ■ Bizkarrean Santua hartuta, mezara sartzen dira auzotarrak.

## Akabo San Juanak!

Urteko gaurik motzenak eman zien hasiera Altzolako jaiei. Ohiko San Juan suaz gain, aurtengo jaietan denetik izan dute

Altzolan: erraldoi eta buruhandiak, rock kontzertuak, herri kirolak, pilota partiduak, berbenak, zezenak... Zezen kontuetan gainera, altzolatarrak beste inor baino orijinalagoak direla argi dago, ikusi bestela, argazkiko erretratuan azaltzen den piszina, kale erdi-erdian, zezena atzera eta aurrera dabilen bitartean. Berotik ihes egin nahian edo, antolatzaileek ginkanarako prestatu zuten piszinetan plasta-plasta ibiltzea izan zen haurrentzat atsegina.

Partaidetza aldetik, sekula baino jende gehiago ibili da aurtengo San Juanetan. Auzotarrak ezezik, elgoibartarrak ere inoiz baino gehiago izan dira Altzolan.



■ ■ Altzolan piszina jarri zuten kale erdian zezenek edo korrikalariek bainutxo har zezaten.

## Lanbide Eskola, Ingurugiroari buruzko konferentziako partaide

Lingua izeneko proiektuari esker, Lanbide Eskolako administraritza moduluko ikasleek nazioarteko konferentzia bat antolatzeko zein ezaugarri diren beharrezkoak aztertu zituzten otsailean Manchesterren. Manchesterreko ikasleak Elgoibarrera etorri behar zutela eta, maila teorikoa praktikan jartzea pentsatu zuten Lanbide Eskolan.

**J**ose Luis Fernandez irakasleak egunkarian ekonomia eta ekologiari buruzko artikulua irakurri eta interesgarri iruditu zitzaion gaia. Batera eta bestera deitu ondoren, jakin zuenez, uztailen benetako konferentzia bat antolatzeko asmoa zegoen eta honen arduraduna Demetrio Loperena, Gipuzkoako campuseko EHuko errektoreordea zen. Jose Luisek Loperenarekin hitzegintzen zuen eta asmoa ezezik interesa ere bazegoela ikusita, azkenean konferentzia hura uztailen, 19tik 21erako egunetan izango da Donostian. Gaia, berriz, "Ingurugiroaren kontziliaziarako eta arbitraiarako nazioarteko



Manchester-eko ikasleek bertoko lekuak eta ohiturak ezagutzeko aukera izan zuten.

gorrea" da. Bigarren aldia da era honetako konferentzia bat antolatzen dena, iaz Mexikon izan zen. Konferentzia honetan munduko jakitunak elkartzen dira, ingurugiroari eta legegari buruzko jakitunak, eta bi gaien artean sor daitezkeen gatazkak konpontzen saiatzen dira, bitartekaritza lana egiten dute.


Lanbide Eskolako eta Manchesterreko ikasleek elkarlanean datu base bat osatu dute, European, Amerikan eta Estatuan ingurugiroarekin lotuta dauden erakunde, pertsona eta elkarrekin, bai eta justizia ministeritza,

unibertsitate eta bestelakoekin ere. Gaur egun European dagoen datu base-rik onenetarikoa izan daiteke, 2.500 helbide ezberdinekin. Jende honi guztiari eskutitz bana bidali diete, konferentziaren egitasmoa azalduz, bai eta Donostiari buruzko informazioa ere, hala nola, hotelak, hegazkinak, irteerak... eta mailing-a prestatzen ari dira. Unibertsitateari esker, Lanbide Eskolan modulu-3 ikasten ari diren lau ikasleek aukera izango dute praktikak egiteko, informazioa emanaz eta azafata (edo azafato) modura.

**ZELETA Barazkiak**  
**KALITATEA ETA ZERBITZUA**

*Baserritik erosketako  
poltsara zuzenean*

**ZELETA BASERRIA** ☎ 74 30 22 San Migel auzoa - ELGOIBAR





## Salerosketak

Soziedaderako bigarren eskuko SUKALDE ELEKTRIKO BAT salgai dago. 8 plaka + laba. Neurriak: 190 x 0,90 x 0,85  
☎ 74 23 02 Juan Cruz

FORD FIESTA SS-N bat saltzen dut. Egoera onean.  
☎ 58 40 01 (Koldo) gaueko 9etatik aurrera

INPRESORA BAT saltzen dut. Zuri beltzean. Ia berria.  
☎ 74 20 95

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEAK dauzkagu salgai.  
☎ 15 04 41

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINEAZIORAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.  
☎ 74 22 29

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.  
☎ 74 28 29  
1,30etatik 2,30etara edo gauez

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinatuta gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)  
☎ 74 15 69

## Etxebizitzak

Elgoibarren lanean diharduen injineruak FAMILIA EUSKALDUN BATEAN astelehenetik ostiralera bitartean BIZI NAHI DU. Lo egin, erropak garbitu eta otorduak.. (☎ 74 33 04

Alcoceber-en APARTAMENTU BAT daukat alokatzeko (irailean)  
☎ 74 22 08

Etxe bat SALTZEN dut ZARAUTZEN. Amueblatua.  
☎ 78 19 50

LOGELA BAT ALOKATZEN DUT.  
☎ 74 24 06

Apartamentu bat alokatzen dut ALCOCEBERen.  
☎ 74 21 86

ATIKO polit bat daukat ALOKATZEKO.  
☎ 74 23 67 (gauez)

SANTA POLAN bungalow bat daukat ALOKATZEKO. Hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaileko lehen hamabostaldia eta iraila.  
☎ 74 27 02

## Lana

TABERNAN orduka lan egiteko NESKA EDO MUTIL BAT behar dugu. (sukaldeko lanak ere bai)  
☎ 74 25 95 Mertxe

NESKA EUSKALDUN BAT BEHAR DA bi haur zaintzeko.  
☎ 74 18 32  
Gaueko 9etatik aurrera deitu

Gizonezko bat behar da kristalak garbitzeko.  
☎ 74 26 77 5etatik aurrera deitu "Kalamua Coop."

Emakume euskaldunak etxeko eta sukaldeko LANAK EDO NAGUSIAK ZAINDUKO lituzke. 17 urteko esperientzia eta kotxeko karneta.  
☎ 74 23 30 (Eusebi)

TITULUDUN ERIZAIN EUSKALDUNA, etxeetara erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.  
☎ 74 02 33 Marta Diego Arrieta (Erizain diplomatua)

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

## Bestelakoak

Hezkuntza Zientzietan lizentziatuak eta 6 urtetako esperientziarekin OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu. Euskaraz eta erdaraz.  
☎ 74 39 24 Maitte

SOLFEOKO KLASEAK emango ditut uztailean. Maila guztiak.  
☎ 74 24 95 Ainara

Tituludun irakasleak PIANOKO KLASEAK ematen ditu. Maila guztiak. Examinak prestatzeko, lana aurreratzeko.  
☎ 74 04 11

Enpresa zientzietan lizentziatuak KONTABILITATEKO INTENTSIBO BAT emango du uztailean. Maila guztiak. Talde mugatuak.  
☎ 74 03 95

FRANTSESEKO KLASEAK ematen ditugu.  
☎ 74 04 59 Jaqueline (13,00-14,30 eta gauez 20,00etatik aurrera)

## Agurrak

Josune, mila esker bi urte t'ardi hauetan eskaini diguzunagatik, estimagarria eta aberatsa benetan. Ea lan berrian zorzte ona izaten duzun eta beste horrenbeste emateko aukera daukazun. Elgoibarko Izarrako eta BARRENeKo lagunak.

Edu, despedida-afaria egitera goaz baina hire itzala urrean izango juau. Ea gida txukuna egiten doken!  
BARRENeKo kuadrila

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning-a .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A. (anbulantzia) .464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitalea756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua .....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Polikirolegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri Eskola .....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Instituta .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74

## 30 OSTIRALA

22,15 NATHALIAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

## 1 LARUNBATA

17,00 EUSKADIKO II BOLO TXAPELKETA

Azken tiraldia

✓ San Migeleko bolatokian

22,15 ZINEA

"Historias del Kronen"

## 2 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

"Historias del Kronen"

## 3 ASTELEHENA

9,00 UDALDIAN 95, UDALEKU IREKIAK

Eskolaurrekoak

✓ Plaza Handian

9,30 UDALDIAN 95, UDALEKU IREKIAK

OHOkO . eta 2. mailak

✓ Plaza Handian

22,15 ZINEA

"Historias del Kronen"

## 4 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Street fighter"

## 7 OSTIRALA

22,15 AIRE LIBREKO ZINEA

"Parque Jurásico"

✓ Plaza Handian

## SAN PEDROKO JAIK

30 OSTIRALA

21,00: Bertso afaria, Egaña eta Lizasorekin.

Ondoren, Erromeria Errekalde anaiekin

24,00: Bolo tiraldiak

1 LARUNBATA

17,00: Haurrentzako jolasak

23,00: Gaupasa Azkonabieta eta Jokinekin

23,30: Bolo tiraldiak

2 IGANDEA

10,30: Meza Nagusia

12,00: Ahari jokoa

Ondoren, esku pilota partidua

18,00: Idi Demak

Partaideak: Ixama (Itziarkoa)

Altzubarren (Eibarkoa) eta

Artadialde (Berritxukoa).

Hizlaria: Ziriako

Jarraian, janariz eta edariz

beteriko orgatilaren zozketa

Egun osoan zehar Olloki eta

Ziolar trikitilariak

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
1, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
2, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
3, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
4, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
5, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
6, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
7, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

### OKINDEGIA:

2, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

## ZINEA



### Historias del Kronen

Zuzendaria: Montxo Armendariz

Antzezleak: Juan Diego, Nuria Prims, Jordi Mollá

Gazteen betiko arazoei buruzko pelikula da. Carlos, 21 urteko mutikoa, arratsaldero bezala Kronen-eko taberna batera abiatzen da lagunekin egoteko. Uda da, eta Carlos-ek gaueko bizimodua egitea atsegin du. Abentura zoro bati beste erogo batek jarraitzen dio. Bapatean, egoera berri baten aurrean aurkituko dira Carlos eta bere lagunak.



### Street fighter

Zuzendaria: Steven E. de Souza  
Antzezleak: Jean-Claude Van Damme, Raul Julia, Kylie Minogue, West Studi.

Shadaloo izeneko hirian, sarraski handia gertatzen da Nazio Batuen armaden aurka. M. Bison generalak 63 langile bahitu ditu eta 72 orduren buruan ez baditu 20 bilioi dolar jasotzen, guztiak hilko ditu. Jean-Claude Van Dammek Indar Aliatuen buruzagitza hartuko du bere gain, eta borrokalari batzuen laguntzaz, tiranoaren eskuetatik salbatuko ditu langileak.

# ISABEL ORMAZABAL - ARMUETA

## Harategia-Urdaitegia

KALITATEAREN EUSKO LABELA duen Abelgorri-Okelaren salmentarako BAIMENDUTAKO HARATEGIA



San Bartolome, 16 • Tel. 74 06 40 • ELGOIBAR



San Frantzisko, 24 • ELGOIBAR • Tel. 74 07 62

Itziarko industrialdea E-13 • ITZIAR

Tel. 19 93 00 - 19 93 39 / Faxes. 19 92 70

## UDAKO ESKAINTZA

### Uztailaren 1etik 15era



**125**  
pta.

**2.325**  
pta.

**1.750**  
pta.

# ELGOIBARKO IRAKASKUNTZA ERTAINAK



B. EZENARRO ☎ 74 44 80



ARREITURRE ☎ 74 02 67

## DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA

### ARREITURRE

- IEE (REM) 1
- IEE (REM) 2
- BBB (BUP) 1
- BBB (BUP) 2

### B. EZENARRO

- BATXILERGO BERRIAK 1
- BATXILERGO BERRIAK 2
- ADMINISTRAZIO ETA GESTIO LAGUNZAILEA (II moduloa)
- AUTOEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA (Erdi mailako hezkuntz-zikloa)
- ENPRESA ADMINISTRAZIOA (III moduloa)



**MATRIKULA EPEA ZABALIK**

**UZTAILAREN 3tik 7ra**

**ORDUA: 9.00 - 13,00 ikastetxeetako bulegoetan**